

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

748

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 9koa, Deskarbonizazioko zuzendariarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Arabako Lurralde Historikoko zenbait eguzki-instalazio fotovoltaikoren eta haiekin lotutako Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetako ebakuazio-azpiegituren administrazio-baimena eta ingurumen-ebaluazioa jendaurrean jartzeko izapideari dagozkion alegazioak aurkezteko epea luzatzea; hauek dira eguzki-instalazio fotovoltaikoak: «Solaria Zierbena Solar 1», «Solaria Zierbena Solar 5», «Solaria Zierbena Solar 6», «Solaria Zierbena Solar 7», «Solaria Zierbena Solar 8», «Solaria Zierbena Solar 9», «Solaria Zierbena Solar 10», «Solaria Zierbena Solar 11», «Solaria Zierbena Solar 12», «Solaria Zierbena Solar 13», «Solaria Zierbena Solar 14», «Solaria Zierbena Solar 17», «Solaria Zierbena Solar 18», «Solaria Zierbena Solar 21», «Solaria Zierbena Solar 22», «Solaria Zierbena Solar 23», «Solaria Zierbena Solar 24», «Solaria Zierbena Solar 25» eta «Solaria Zierbena Solar 29».

AURREKARIAK

2026ko urtarrilaren 21ean Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Deskarbonizazioko zuzendariaren iragarkia zeinaren bidez jendaurrean jarri baitziren Arabako Lurralde Historikoko zenbait eguzki-instalazio fotovoltaikoren eta haiekin lotutako Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetako ebakuazio-azpiegituren aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-ebaluazioa eskuratzeko eskaerak; hauek dira eguzki-instalazio fotovoltaikoak: «Solaria Zierbena Solar 1», «Solaria Zierbena Solar 5», «Solaria Zierbena Solar 6», «Solaria Zierbena Solar 7», «Solaria Zierbena Solar 8», «Solaria Zierbena Solar 9», «Solaria Zierbena Solar 10», «Solaria Zierbena Solar 11», «Solaria Zierbena Solar 12», «Solaria Zierbena Solar 13», «Solaria Zierbena Solar 14», «Solaria Zierbena Solar 17», «Solaria Zierbena Solar 18», «Solaria Zierbena Solar 21», «Solaria Zierbena Solar 22», «Solaria Zierbena Solar 23», «Solaria Zierbena Solar 24», «Solaria Zierbena Solar 25» eta «Solaria Zierbena Solar 29». Iragarkian, gainera, 30 egun balioduneko epea ezarri zen alegazioak aurkezteko; hau da, 2026ko martxoaren 4ra arteko epea.

Eskaera batzuk jaso dira, bai partikularrenak, bai interesdunenak, bai ukitutako udal eta administrazio-batzarrenak, jendaurrean jartzeko izapidearen barruan alegazioak aurkezteko epea luzatzeko, jendaurrean jarritako proiektu kopuru handia dela eta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deskarbonizazio Zuzendaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena) 32. artikuluan ezarritakoa betez, Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie; epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) 36. artikulua arabera, proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana jendurrean jarriko dira hogeita hamar egun baliodunetan, gutxienez.

Solaria Eguzki Sorkuntza SM sustatzaileak, 2025eko urriaren 29tik 30era bitartean, 47 proiektu berri aurkeztu zituen jendurrean jartzeko, bai eta proiektu horiei dagokien ingurumen-inpaktuaren azterketa bateratua ere. Proiektu kopuru handia eta proiektu horiek lurraldean duten eragina kontuan hartuta, eta herritarrek erabakitze-prozesuan parte-hartze egokia izango dutela bermatzeko, aplikatzeko den araudiak ezartzen duen moduan, hasieran aurreikusitako epea luzatzea komenigarria dela uste da, ezarritako gehieneko epean.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, Deskarbonizazioko zuzendariak hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jendurrean jartzeko izapidearen barruan alegazioak aurkezteko epea 15 egun baliodunetan luzatzea; hau da, 2026ko martxoaren 26ra arte.

Bigarrena.– Ebazpen hau eskatzaileei eta Solaria Eguzki Sorkuntza SM sustatzaileari jakinaraz dakiela agintzea, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena) 32.3 artikuluaekin bat etorriz, epeak luzatzeari edo horiek ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin da errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 9a.

Deskarbonizazioko zuzendaria,
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.